

kolaborazioak

Jose Luis Alvarez Enparantza • Txillardegui • Hizkuntzalaría eta idazlea

Bretoiak kinka larrian

Bretainiak oraindik itzuli berri xamarra naizelarik, handikako oihartzun batzuek iritsi zaizkit egun hauetan. Eta, denetan gailen. *Sol-Uhel ar Vroko* idazkari den Catherine Boulelegk bidali didan «*Dosument de presentation de la Communauté Linguistique Bretonne*» delakoak mintzatuko naitzazue (aurtengo urtarri-lean argitaratua).

84 orrialde trinkotan barenna, eta alferrikako itzulimurutan luzatu gabe, txostengileek Bretainiako egia lantza agertzen digute. Alegia, bretoiak beren nazio hizkuntza zeltikoa, oso urte gutxi barru osotara galtzeko arrisku bizian daudela.

«*Nos écoles dans la Basse-Bretagne* -zioen prefetoak joan den mendeantont *particulièrement pour objet de substituer la langue française au breton.*»

Argi eta garbi mintzo zituztaion lerro horietan ikus dezakegun (1846ko azaroaren 21ean zehazki), Côtes du Nord Departamenduko Prefetoa St. Brieuco Apezpiquiri.

Parisko gobernuaren xede hura lortu du jadanik ia-ia.

Ikerketek («*ikerketek*» diot, bai: Frantziar, Grezian bezala ez baitago hizkuntz erroldarik) ez dute zalantza-

rako atekarik uzten: gaur egun, hamabost urte inguruko gazteen artean, ozta-ozta «ulertzen» du bretoierra...%lek (1).

Egoera bere osoan hartuta, 358.000 lagunek «ulertzen» dute gaur hizkuntza hau: %9,3k. 1914an, aldiz, 1.350.000 lagunek zekiten bretoierraz: populazioaren %41k.

Hiru belaualditan, kito!: «*En Bretagne fout le monde parle parfaitement le français. Plus besoin de jargon régional.*»

Hizkuntz ordezkapen ho-

nen oinarriak, aspaldian ezarri zituzten Paristik. Noski.

Bretoiak ez daude batirik, hasieko. Bost departamendutan banaturik, beruak ere bi «erregio» desberdinetan sailkatuta daude.

Aldi batetik, «Bretagne» izeneko herrialdean lau departamendu daude:

1/ Penn-ar-Bed izeneko («*Finistere*» frantzesez). Kemper hiriburu. Osoki bretoiiduna izana, Mendebalde muturrean.

2/ Audou-an-Arvor delakoa («*Côtes D'Armor*» frantzesez), Iparaldean. ST. Breig hiriburu: aspaldi honetan, erdia «gallo» («*patois*»a desagertzean, frankofoñoa, oro har); eta beste erdia, bretoierraduna.

3/ Mor-Bihan izeneko («*Morbihan*» frantzesez), Hegoaldean. Gwened hiriburuarren inguruan (fr. «*Vannes*»). Berau ere erditua frankofoñoa tradizioz, eta beste erdia bretoierraduna.

4/ Il-ha-Gwilen izeneko (frantzesez «*Ille-et-Vilaine*» baitaiauta). Hiriburuarri Roazhon deritza bretoierraz (fr. «*Rennes*»). Frankofoñoa as-

paldidanik bere osoan, «erdalduna» nolazpait azkar esatekoan; eta euskal deportatu mordot batek ezagutua.

Eta, bestetik, berex, «*Loire Atlantique*» herrialdean bakarrik gelditu den bosgarren departamendua:

5/ Liger-Atlantel izeneko. Hegoaldean. *Noaned* hiriburu («*Nantes*» frantzesez). Hizkuntzaren aldetik, frantsestua aspaldidanik.

Bretoiarik gehienak, bereaz (2.700.000 lagun: bi heren gutxi gorabehera) gaur egun eskualde «erdaldunetara» bizi dira; eta 1.147.000 (heren bat bakarrik) Breizh Izel izeneko eskualde bretoierradunetan.

«*Divide ut vincas*» omen zioten erromatarrek: garaituko baduk, zatika ezak.

Itzuli gaitzen orain hasierako kopuruetara. Adierazgarriak izan arren, lehenengo begiraldian egia garrantza ezkuta baitezakete.

Gaur egun, %9,3 bretoi elebidunak direla esanez, %90,7k frantzesez besterik ez dakiten elabakarrak direla adierazten dugu era berean. Zifra lazarriak.

Aldi batetik, Bretainian diglosia gorria dagoelako. Zeren eta, norik daki gaur bretoierraz? Txostenean irakur dezakegunez, lanbidez, nekazariek (%58), eta adinez, erretiroa hartutako zaharrek (%47).

Ezaugera-adina taulek nabarmenki azaleratzen dute egoera: 75 urtetik gorakoen artean %70k daki bretoierraz; 40/49 urtekoetan, berrix, %27k; 20/29 adinekoetan, %5,5ek; eta 15/19 urtekoetan, %1ek ozta-ozta. Profeta izan gabe ere, edonork soma dezake Bretainian buruzten ari den hizkuntz ordezkapen nora daraman, eta berehalako amaituko dela.

Beste xehetasun adierazgarri hau: hirietan orainaxe gertatzen hasi den abertzale gazte militanteen taldeetatik at, bretoierra herri txiki-txikietan bakarrik entzun daitezkeela gaur.

1977an, bretoierra ardatz eta eskolabide nagusi, Estatuko organigramatik at erabat, sortu zen Diwan eskola sarea. Eta bi haurtzaindaria zabaldu zituen: Ploudalmézean bata, eta Kemperren

bestea. Gaur egun (1998), 4.746 haurrek ikasten dute bretoierraz eskoletan (%0,8k). Kopuru txiki hori, nolana ere, gora doa urte urte. Kalerat helduek, bestalde, galdutako hizkuntza berreskuratu nahi, gero eta gogo biziaz.

Eta 7.000 nagusi ari dira hanga «gau-eskoletan» sutsu ikasten. Ikaslerik gehien-gehinak, hau azpimarratu behar da, hiri frantsestuetako kaletarrak.

Beste alde batetik, azkenik, orain dela urte erdi (1997ko irailean), Paristik zer etorriko ete den zain egon gabe, 15 lagunek osaturik, Kemperren, *Kelenan* izeneko pedagogik-sareta sortu dela; bretoierraz ariituko diren irakasleak prestatzeko.

Bretainian, oso tirada txiki-kiko zazpi aldiakirak badaude ere (400, 600, 800 ale argitaratzen dituztenak), bretoierra hutszoko egunkaririk ez dago.

Urtean 61 liburu argitaratzen dira bretoierraz (1996). Bretainian kaleratzen diren liburuen artean, %11 osatzen dute bretoierrazkoek; eta gainerako %89k frantsesez agertzen dira.

Datu xume batzuek besterik ez dira haxe. Jakina.

Baina euskaldunok non gauden kokatzeko lagunagari gerta dakizkiguke. *

Bretoiak beren nazio hizkuntza zeltikoa, oso urte gutxi barru osotara galtzeko arrisku bizian daude

Inma Burguete Zubiaga • Grupo de enseñantes de las Escuelas Infantiles Municipales de Pamplona

¿Veinte años para esto?

Las Escuelas Infantiles hoy en día resultan caras a los usuarios, pero si estuvieran reconocidas por el Departamento de Educación y se subvencionaran al cien por cien como lo está el resto de la educación obligatoria no lo serían tanto, ya que los padres pagarían el servicio de comedor como lo hacen en otros centros educativos

la Universidad (UPNA) y de otras Universidades (Mallorca), han realizado sus prácticas en nuestras Escuelas Infantiles.

En estos últimos tiempos se está hablando de la puesta en marcha del primer Ciclo de Educación Infantil (0-3), como si se tratase de una cosa rara, ¡pues no, señores! aquí estamos nosotros y nosotros trabajando ese primer ciclo de la educación infantil y parece que nadie se entera.

Hemos demostrado por activa y por pasiva (para quien lo ha querido ver), que estamos ofreciendo una enseñanza de calidad, que nuestras Escuelas Infantiles están preparadas para acoger a los niños y niñas de 0-3 y

que queremos que nuestra experiencia se extienda y dé cobertura a la demanda ya existente y a la que se generará cuando entre en vigor la Ley que regula este Ciclo y que debería ser en el año 2002. ¿O es que se lo van a cargar los señores políticos de un plumazo antes de ponerlo en funcionamiento?

Estamos asistiendo a una época de descenso de la natalidad y esto repercute en gran medida en la Enseñanza y pensando en todos esos maestros y todas esas maestras que van a sobrar en las escuelas, se intenta romper el primer Ciclo de Educación Infantil (0-3) introduciendo los niños y niñas de 2 años en las escuelas.

Señores responsables de

Educación: la infancia tiene unos derechos que hay que respetar y no deben servir únicamente para conmemorarlos en un día determinado del año.

La infancia tiene derecho a una educación digna y de calidad adecuada a las necesidades de cada edad y no creemos que esto se cumpla cuando metemos a los niños y niñas con calzador en la Escuela donde no existen condiciones físicas, materiales ni humanas adecuadas y/o suficientes para que ello se cumpla.

Cada etapa en la vida tiene unas peculiaridades, y ésta que nos atañe tiene las suyas específicas. Tenerlas en cuenta nos lleva a concebir el niño como un sujeto global y no parcelizar cada una de sus necesidades.

Nosotros creemos que estamos educando cuando cantamos, hablamos, comemos, cuando vamos al taller de plástica u otro cualquiera o cuando le ayudamos a conseguir el control de esfínteres.

Todo es educar, y así entendemos nosotros nuestra tarea. Pero ya sabemos que el poner en marcha el primer Ciclo de Educación Infantil acarreará unos costes, materiales grandes... pero ¿acaso el resto de la Educa-

ción obligatoria no los tiene y nadie se cuestiona el tema? ¿Es que la Sanidad no es muy costosa? Pero nadie nos oponemos a que se invierta en mejorar medios, tanto humanos como materiales que revertien en una mejor calidad de vida de la sociedad.

¿Acaso el Ayuntamiento pregunta a los vecinos si creen necesario ampliar su plantilla de guardias municipales? Y el Gobierno, ¿consulta con alguien a la hora de hacer inversiones militares que tan costosas son?

Nuestras Escuelas Infantiles hoy en día resultan caras a los usuarios, pero si estuvieran reconocidas por el Departamento de Educación y se subvencionaran al cien por cien como lo está el resto de la Educación obligatoria, no lo serían tanto ya que los padres pagarían el servicio de comedor como lo hacen en otros centros educativos.

Y volviendo al tema educativo, está más que demostrado que el período de edad 0-3 es crucial en la vida. Dotémosle pues de los medios necesarios para su desarrollo y toda la sociedad se verá beneficiada.

Pero para hacerlo, tengamos presente las experiencias ya existentes.

Señores políticos y responsables de Educación: el año 2002 está a la vuelta de la esquina, si no lo tenemos en cuenta nos pillará con el culo al aire. *

